


Sormena lantzen: aldizkari digitala eta ipuina



11.Mar - 14.Api

Kod. @8-19

Edizioa

2019

Jaduera mota

Online ikastaroa

Data

11.Mar - 14.Api

Hizkuntzak

Euskara, Ingelera

Balio akademikoa

30h ordu

ZUZENDARITZA

Arantzazu Martinez Etxarri, Lizardi BHI, Hezkuntza

Antolakuntza Batzordea

Fundación **BBVA**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Azalpena

Ikastaro honek Ikastaro honek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saileko eta Eusko Jurlaritzako Hezkuntza Saileko Baliozkotzea izango du (1868170032 Kodea) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat.

-30 ordu 4 astetan zehar (astero 7-8 lan-ordu)

-Hasiera: 2019/03/11 Bukaera: 2019/04/14

-Tarifa bakarra: 80 euro

-Hizkuntza ofiziala: euskara eta ingelesa (ingeleseko maila oinarritzeko nahikoa da. Komunikazioa elkarren artean euskaraz izango da. Ingelesa, bibliografia ulertzeko, soilik)

Helburuak

Proposamen hau gure eguneroko saioetarako baliagarriak izan daitezkeen materialen aurkezpenean datza. Arloenarteko material eleanitzak baliatuz, eguneroko jarduna hobetu nahi dugu eta aldi berean ikasleak motibatu. Horretarako, eguneroko praktikarako eredu izan daitezkeen aldizkari digitala aurkeztuko dugu eta proiektu honen oinarrian dauden hausnarketa metodologikoen berri emango dugu. Aldizkariaren atazen artean, ipuinaren ekoizpenean murgilduko gara, ipuinaren egitura eta hainbat ezaugarri tekniko landuz. Baliabide horiek guztiak erabiliz ikasleek beraiek sormena eta autonomia (Dam 1995) lantzea eta garatzea izango da gure helburua eta horretarako estrategiak aurkeztuko dira. Aldizkari digital bat diseinatzeak eskatzen duen koordinazioa aintzat hartuz, irakasleen arteko elkarreragina foroaren bitartez gauzatuko dugu. Irakasleek elkarreraginean oinarritutako proposamenak partekatuko dituzte, hala nola, ikastaroan aurkeztutako estrategiak aplikatuz egingo duten ipuin laburra. Horrez gain, zenbait Europar proiekturen berri emango da, etorkizunean ere modu koordinatuan lan egiteko. Azkenik, materialak eredu moduan hartuz, ikasleek egindako praktika on batzuk aurkeztuko dira.

Helburuak:

Ikasleak motibatu modu dinamiko eta sortzailean lan eginez.

Ikasleari modu autonomoan lan egiteko baliabideak aurkeztu: aldizkaria eta ipuina.

Ikasleei sormena garatzeko baliagarriak diren eredu zehatzak aurkeztu: aldizkarian eta ipuinetan oinarrituz ideiak garatuko dituzte.

Arloenarteko material eleanitzak sortzeko baliabideak eskaini (ataza eleanitzak eta arloartekoak).

Irakasleen eta irakasleen arteko elkarreragina bultzatu taldeetan lan eginez.

Ideiak garatzeko eredu izan daitezkeen praktika onak aurkeztu.

Sormen prozesu baten hasierari ikasleak dion beldurra gainditzeko baliabide jakinak eskaini (paper txuriaren aurrean urratsak eta akordeoia).

Programa

2019-03-05 / 2019-04-07

sormena lantzen: aldizkari digitala eta ipuina

1. GAIA / PART I

11/03/2018 – 17/03/2018

Atal honi dagokion bibliografia irakurriko da lehenik, ikastaroaren oinarrian dauden bi planteamendu metodologikoei buruzkoa: adimen anitzak batetik eta ikaslearen ikasketa autonomoaren ondorio den sormena bestetik. Horiekin erlazio estuan DBHko ikasleek egindako posterrak aurkeztuko dira. Ekoizpen horiek aztertu eta hausnarketa egingo da. Saio honetan egindako gogoetak, aurrerantzean egin beharrekoaren oinarri izango dira.

We start reading the bibliography that corresponds to this section. We will reflect on two main methodologies, multiple intelligences, and the development of creativity based on learner's autonomy. These approaches will be crucial for our practice and also basic as a point of departure. We will present some posters done by our students and analyze them.

2. GAIA / PART II

18/03/2018- 24/03/2018

Sormena lantzen laguntzeko eredu moduan aldizkari digitala aurkeztuko da. Eta hala, sormena eta autonomia garatzeko diseinatuta dauden materialetan surfeatuko dugu saio honetan. "Run like a girl" bideoa ikusi eta aztertuko da. Bideo hori edota aldizkarian aurki daitezkeen beste ereduak aintzat hartuz, arloak uztartzen dituzten praktika bat egitea eskatuko da.

The digital magazine will be presented as a model to develop creativity. We will surf into the materials designed and watch the video "Run like a girl" to reflect on the way different subjects are connected. Based on the video and on other samples, the participants will have to make a similar proposal for an interdisciplinary activity.

3. GAIA / PART III

25/03/2018 – 31/03/2018

Atal honetan ipuin laburra izango dugu aztergai. Helburu nagusia ikasleei baliagarriak izan dakizkioen pautak eta tresnak eskaintzea izango da, horiek baliatuz ipuin labur bat idatz dezaten.

This section will be devoted to the previous phase of the creation of a short story. Tools and tips will be given to help the students create a short story, both structural tips and also technical (see tips to write a short story).

4. GAIA / PART IV

01/04/2018-07/04/2018

Hizkuntzaren unibertsalak izango ditugu hausnarketagai eta horiekin erlazioan dauden hizkuntzen arteko antzekotasunak: kognatuak, funtzio gramatikalak, ezaugarri morfosintaktiko paraleloak, eta abar. Horrez gain, ipuin labur baten egitura unibertsala izango dugu hausnarketa gai.

We will reflect on language universals and similarities between languages: cognates, grammatical functions, morphological and syntactic parallelisms, structural universals and so on. We will have a look at the

subsection of interactive plays in order to reflect on the links between languages. We will also reflect on the structure that short stories have in common, regardless of the language in which they are written.

Aurreko asteetan egindako ariketetan oinarrituz, ipuin labur bat idaztea izango da azken ataza, eta hala, arloenarteko lana bermatuko dugu.

The task of this section will be to write a short multilingual and interdisciplinary story showing the parallelisms and universals mentioned above. The layout of the short story will be designed based on the tips given.

Ikastaroan ikasitakoa jarraituz, ebaluazioa baino areago, autoebaluazio jarraia izango da nagusi. *Applying what we have learnt in this course, evaluation will be continuous and mainly autonomous.*

EMALEAK : **Arantzazu Martinez Etxarri**
Alfredo Gil Larrinaga

Zuzendariak



Arantzazu Martinez Etxarri

Lizardi BHI, Hezkuntza

1988 Euskal Filologia, Deustuko Unibertsitatea. 1990 Masterra Hizkuntzalaritzan. University of Southern California, Los Angeles. 2015 Doktoradutza Hizkuntzalaritzan. Deustuko Unibertsitatea. Europar Proiektu eta nazioarteko ekintzetan parte hartu du, bai partaide moduan, baita koordinatzaile eta kudeatzaile moduan ere. Bestalde, Erasmus + proiektuen ebaluatzailea da 2008-. Proiektu hauetan guztietan garatutako materialak eta berrikuntza metodologikoak ikastaro honen ardatz izango dira.

Irakasleak



Alfredo Gil Larrinaga

CIFP Emilio Campuzano LHII (Atxuri)

1998 Arte ederrak, UPV-EHU. 2010 Doktoradutza Arte Ederretan, UPV-EHU.

Matrikula prezioak

MATRIKULA

2019-03-13 ARTE

[Tarifa bakarra](#)

80,00 EUR